



**NIRE GORPUTZA, NIRE ERABAKIA. HEMEN ZEIN GUATEMALAN!**

# 2. Ikus-entzunezko lehiaketa

# — OINARRIAK —



**medicumundi bizkaia** elkartetik *“Nire gorputza, nire erabakia”* lehiaketaren 2. edizioa antolatu dugu emakumeek gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeko duten eskubidearen errespetua aldarrikatzeko, hemen zein Hegoaldeko herrialdeetan.

## 1.- PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan 1984 eta 1996 (biak barne) bitarteko urteetan jaiotako bizkaitarrak eta Bizkaian lan egin, ikasi edo bizi direnak parte hartu ahal izango dute. Lehiaketaren parte hartzea derrigorrez taldekakoa izango da. Talde bakoitza 4 pertsonaz osatuta egon behar da eta izen bat jarriko diote taldea identifikatu ahal izateko.

## 2.- LANAK

Lehiaketan parte hartzeko talde bakoitzak **medicumundi bizkaia**k, **Olaia Aretxabaleta** eta **Esne Beltza** euskal taldearen eta **Idily Mérida** eta **Sacate Jag** Guatemalako taldearen laguntzaz, sortutako abestien artean bat aukeratu beharko du.

### • **OLAIA ARETXABALETA eta ESNE BELTZA** sortutako abestia:

<https://www.youtube.com/watch?v=Y-3DzMAvsl8&list=UUkXfAoYJJSZZn5q3EE7vGw>

### • **IDILY MÉRIDA eta SACATE JAG** sortutako abestia:

<https://www.youtube.com/watch?v=NVpHQydMP6Y&list=UUkXfAoYJJSZZn5q3EE7vGw>

Taldeak aukeratutako abestiarekin **bideoklip** edo **ikus-entzunezko lan bat egin beharko du**. Honetarako LIP DUB, FLASHMOB, CUP SONG edota bestelako musikazko ikus-entzunezko mota erabili ahal izango da. Taldeek nahi adin baliabide eta euskarri erabili ahal izango dute (mezuak, kartelak, mozorroak, besteak beste). Lanak grabatzeko materiala, baliabideak eta gastu guztiak taldeen kontura izango dira. Antolatzailerak ez daude derrigorputa parte hartzaileen esku

ikus-entzunezko ekipoak, atrezzoak, jantziak edo bestelako ezer uzteko. Lan guztiak jatorrizkoak izan beharko dira, hau da, inon argitaratu, aurkeztu eta saritu izanak.

## 3.- GAIA

Lehiaketaren eta abestien gaia **“emakumeak gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeko eskubidea hemen eta Hegoaldeko herrialdeetan”** izango da, emakumeen gorputzaren aurkako indarkeria sinbolikoa salatzea, hain zuzen.

**Ikus-entzunezko lan bakoitzak honako aspektuak hartu behar izango ditu barne:**



- Gaiarekin lotuta, Iparraldeko (Bizkaia edo EAE) eta Hegoaldeko (Guatemala) herrialdeen errealitateak isladatzea.
- Genero-parekidetasun ikuspuntua izatea, emakumeen giza-eskubideak errespetatzea eta hizkuntza ez sexista erabiltzea.
- Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen Jokabide eta Irudi Kodea kontutan hartzea.
- Ingurumenarekiko errespetua.

Indarkeria Sinbolikoko Gaiaren inguruan informazio gehiago:

- Edertasunaren Indarkeria: Nerabeen gorputza, kontrolaren lurraldean (txostena): <http://medicumundibizkaia.org/digital/edertasunarenindarkeria/>
- medicumundi bizkaia blogan: [www.medicumundibizkaia.org](http://www.medicumundibizkaia.org)

#### 4.- EPEA

Lanak aurkezteko epea irailaren 15etik azaroaren 5a arte egongo da indarrean.

#### 5.- LANAK BIDALTZEKO MODUA

Lanak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira bideo-plataforma batera esteka bat jarritz (Youtube, Vimeo, etab.)

Lanak, gainera, posta elektronikoz bidali behar izango dira [educa.bizkaia@medicumundi.es](mailto:educa.bizkaia@medicumundi.es) helbidera, eta ondorengo datuak atxikitu beharko dira:

- Bideoaren izenburua eta esteka
- Taldearen izena
- Taldeko kide bakoitzaren izen-abizenak, jaioteguna, helbidea, telefonoa, e-maila eta NAN (nortasun-agiri nazionala) kopia. Taldeko kideren bat Bizkaian jaio ez bada edo NAN-ean agertzen den herria Bizkaia ez bada, ziurtagiria atxikitu beharko da bertanbizi, lan egin edo ikasten ari dela frogatzeko.
- Taldeko kideren batek ez baditu zehaztutako baldintzak betetzen edo taldeko kide kopurua ezarritakoa ez bada, taldea automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko da, eta ez du saririk jasotzeko aukerarik izango.

#### 6.- SARIAK

**1. Saria:** Guatemalara 10-15 bat eguneko bidaia. Bertan, ikus-entzunezko errealizazio tailer batean parte hartuko da tokiko gazteekin; herrialdearen errealitatea ezagutzeko da, hala nola, medicumundi bizkaia eta Nuevos Horizontes elkarteek egiten duten

lankidetzaren bidez. Talde irabazlearekin batera erabakiko da bidaiaren data.

**2. Saria:** 500€

**3. Saria:** 300€ Bideo originalena aurkeztu duen neska-mutilez sortutako taldearentzat.

Parte-hartzaile batek ezin izango du sari bat baino gehiago jaso.

#### 7.- IRABAZLEAK ERABAKITZEKO SISTEMA ETA EPAIMAHAIJA

Azaroaren 5ean igoko dira video guztiak medicumundi bizkaia Facebook-era, baldin eta arazorik gertatzen ez bada.

Azaroaren 5etik-11ra Facebook-en boto ("me gusta") gehien jasotzen duten 10 lanak izango dira finalista lehiaketan.

Irabazleak erabakitzeko sistema mistoa erabiliko da:

- Puntuoen %50a webgunean jasotako botoen bidez erabakiko da (Facebook).
- Gainerako %50a epaimahaiak emango du, honako irizpide hauek kontuan hartuta:
  - \* Lanak indarkeria sinbolikoa emakumeen gorputzean nola isladatzen duen eta Heogaldeko herrialdeak ematen duen ikuspegia
  - \* Lanean parte hartzen duen lagun kopurua
  - \* Lanaren kalitate artistikoa: koreografia, antzezpena, atrezzo edo epaimahaiak kontuan har ditzakeen veste hainbat.
  - \* Lanaren kalitatea ikus-entzunezko produkzioaren esparru teknikitik: enkuadreak, irudi-konposaketa, argiztapena eta abar.
  - \* Lanaren promozioan erabilitako Interneteko tresnak: web 2.0, sare sozialak, ideia berritzaileak...

Epaimahaija medicumundi bizkaia, Pikara Magazine, Mugarik Gabe Elkarteak eta Olaia Aretxabaleta abeslariak osatuko dute.

Lanak ebaluatzeko, apaitutako irizpideak gain, epaimahaiak kontuan izango du prosamenak genero-parekidetasun ikuspuntua izatea, emakumeen giza-eskubideak errespetatzea eta hizkuntza ez sexista erabiltzea.

Epaimahaiaren esku geratzen da sari banaketa. Edozein sari eman gabe utz dezake epaimahaiak, behar adina kalitate duen lanik ez dagoela erdiesten badu.

#### 8.- SARI-BANAKETA

Sari-banaketa 2014ko azaroaren 28an izango da, 20:00etatik aurrera, Bilboko Hika Ateneo aretoan burutuko den festan (Muelle Ibeni 1, Atxuri - Bilbo).

#### 9.- BESTELAKOAK

- Lehiaketan ekoizitako lan guztiak Creative Commons aitortu-partekatu lizentziarekin zabalduko dira. Horren arabera, egileek baimena ematen dute euren lana edozeinek ikusi, erakutsi edota berrerabiltzeko, beti ere egile eta aitortu eta eratorritako lanak baldintza berdinetan partekatuz. Informazio gehiagorako, ikus: <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>
- Ikus-entzunezko lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar. medicumundi bizkaia eskubidea izango du jasoko diren bideoak Interneten eskegitzeko edota irratian eta telebistan emititzeko.
- medicumundi bizkaia bere esku izango du oinarritzko eskubideak urratzen edo elementu iraingarriak dauzkaten bideoak lehiaketatik kanpo uzteko aukera.
- medicumundi bizkaia oinarri hauek aldatzeko eskubidea izango du eta hala eginez gero, behar bezala jakinarazi beharko ditu.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, hona hemen harreman bideak:

**Telefonoa:** 94 412 73 98

**E-maila:** [educa.bizkaia@medicumundi.es](mailto:educa.bizkaia@medicumundi.es)

**Bloga:** [www.medicumundibizkaia.org](http://www.medicumundibizkaia.org)

**Web gunea:** [www.medicumundi.es/bizkaia](http://www.medicumundi.es/bizkaia)

**Facebook:** [Medicumundi Bizkaia](https://www.facebook.com/MedicumundiBizkaia)

**Twitter:** [@medicumundibiz](https://twitter.com/medicumundibiz)

ANTOLATZAILEA



BULTZATZAILEA



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

LAGUNTZAILEAK



MUGARIK GABE  
Organización No Gubernamental de Cooperación para el Desarrollo Humano, Educativo y Social  
Secretaría de Unidad Pública

\*Datu pertsonalen Baberako 15/1999 Lege Organikoak dioen arabera, zure datuak fitxategi batean gordeko ditugu. Fitxategi hau datuen baberako agentziaren erregistroan inskribatua dago eta medicumundi bizkaia da honen arduraduna. Datu hauen bilketaren helburua lehiaketaren kudeaketarako beharrezkoak diren izapideak erraztea da. Edozein kasutan, zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edota aurkakosuna adierazteko eskubidea duzu medicumundi bizkaia-ra zuzenduz helbide honetan: Begoñako Andra Mari, 20 zenb., beheka 48006 Bilbo edo helbide elektronikoa honetan [bizkaia@medicumundi.es](mailto:bizkaia@medicumundi.es) eta komunikazioan DBLO adieraziz.